

2. AKTA

2004ko martxoaren 1ean ospatutako **TOKIKO GOBERNU JUNTA**.

TOKIA: Pasaiako Hirian eta bertako UIdaletxean

DATA: bi mila eta lauko martxoak bat.

ETORRIAK:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j.
Xabier Pombo González j.

Lehendakaria :

Izaskun Gómez Cermeño andre Alkatea.

Lehenengo deialdian eta Izaskun Gómez Cermeño andre Alkatearen presidentzian, goian aipatu zinegotziak bildu dira, Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko Idazkaria bertan delarik, Tokiko Gobernuaren Juntaren batzarraldia ospatzeko.

Lehendakaritzak, konstataturik behar hainbat partaide bildu direla Tokiko Gobernuaren Junta legalki osatzeko, irekitzat eman du batzarraldia 12:30etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta, 1.a, 2004ko otsailaren 3koa irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen den akta, Tokiko Gobernuaren Juntak erabaki du ontzat eman bere osoan eta dagokion Akta liburuan transkribatzea.

2.- 03-12-30eko Alkatetzaren Dekretua berroneste. Kontu-fakturen 13. zerrenda onartzea.

Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du berroneste 03-12-30eko Alkatetzaren Dekretua, zeinen bidez onartzen baita 13/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (170.552,50 eurokoa).

3.- 2/04 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda.

Tokiko Gobernuaren Juntak erabaki du ontzat ematea 2/04 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda HIRUROGEITA HAMAR MILA EHUN ETA BERROGEITA BI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (70.142,59 eurokoa).

4.- Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei diru-laguntzak.1/04 zka. daraman proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2004ko otsailaren 8an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 28.273,14 eurokoak.Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-129/04 Baimenduaren kontura.

5.- Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei diru-laguntzak. 1/04 zka. daraman proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2004ko otsailaren 8an egindako proposamena eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 210.633,15 eurokoak.Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-128/04 Baimenduaren kontura.

6.- “Donibaneko Puntasko Ibilbideari dagokion urbanizazioa” obraren 4. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: bakarra.

Obra: “Donibaneko Puntasko Ibilbideari dagokion urbanizazioa”.

Obra Zuzendariak: Joan Karlos Lapazaran jauna (Asmatu, S.L.), Mikel Galarraga jauna (Asmatu, S.L.) eta Jose M^a Irazusta jauna (Udal Aparenjadore).

CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A.enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: EHUN ETA BERROGEITA HAMABI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (152.583,98 euro).



Indarreango udal aurrekontuko D-239/03 Disposamenduaren kargura.

7.- “Eremu Urbanoa Ipar Antxo C-1 (C-8 fasea) berrurbanizatzea” obraren 5. ziurtagiria (azkena).

Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 5 (azkena).

Obra: “Eremu Urbanoa Ipar Antxo C-1 (C-8 fasea) berrurbanizatzea”.

Obra-zuzendariak: Joan Karlos Lapazaran jauna (Asmatu, S.L.).

ARKAITZA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEI EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMOA (20.360,17 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-343/03 Disposamenduaren kargura.

8.- “San Joan kaleko 114ko eraikina erreformatzea” obraren 5. ziurtagiria (azkena).

Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: 5 (azkena).

Obra: “Pasai Donibaneko San Joan kaleko 114ko eraikina erreformatzea”

Obra zuzendariak: Monika Benko Beobide andrea, Kristina Arkaitz Altzola andrea, Jose Maria Irazusta Garikano jauna.

BIOK ETXEGINTZA, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA EURO ETA HOGETA BAT ZENTIMO (2.247,21 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-692/01 Disposamenduaren kargura.

9.- “Azkuene, Ulia, Errenteria-Trintxerpe Eremua urbanizatzea” obraren 8. ziurtagiria.



Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: 8. (Obrak)

Obra: “Azkuene, Ulia, Errenteria-Trintxerpe Eremua urbanizatzea”.

Obra zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azoitia j. (Udal Arkitektoa) eta Jose Maria Irazusta Garikano j. (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA BOST MILA ETA LAUROGEITA
BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMO (65.089,42 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-369/03 Disposamenduaren kargura.

10.- “Azkuene, Ulia, Errenteria-Trintxerpe Eremua urbanizatzea” obraren 8. ziurtagiria (Segurtasuna eta Osasuna gehi Kontrola).

Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: 8 (Segurtasuna eta Osasuna gehi Kontrola).

Obra: “Azkuene, Ulia, Errenteria-Trintxerpe Eremua urbanizatzea”.

Obra zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azoitia j. (Udal Arkitektoa) eta Jose Maria Irazusta Garikano j. (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA HOGEITA
BEDERATZI ZENTIMO (1.281,29 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-728/03 Disposamenduaren kargura.

11.- Ondare erantzukizunaz hainbat erreklamazio.

A) Jose Miguel Sardon Alejos jaunak egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

Jose Miguel Sardon Alejos jaunak ondare erantzukizuneko eskaera egin zuen 2003ko abenduaren 31n. Bertan, zehazki 277, 52 euroko kalte-ordaina eskatzen dio Udalari bere kotxeak egun batzuk lehenago Euskadi Etorbidean zegoen zuloan sartu zenean jasandako kalteengatik. Eskaerarekin batera, kalteen konponketarako aurrekontua aurkeztu du.

Udalak frogatutzat jotzen du gertatutakoa espedientean dauden txostenei jarraiki.

Nolanahi ere gertaeran eskatzailearen jarrerak izan du bere eragina, izan ere leku horretan gehieneko abiadura orduko 30era mugatuta dago eta hori errespetatuz gero kalteak ez ziren izan direnak izango. Bestalde, eskaerak ez du kontuan hartzen gurpilaren haginaren balioa zenbatzerakoan ezin dela berriarena kontatu, ezbeharrak izandako unean gurpil-hagin horrek zuen salmenta-balioarena baizik..

Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Zati batean BAIESTE A Jose Miguel Sardonek eginiko ondare erantzukizuneko eskaera eta konponketaren faktura aurkezten duenean horren %50a (138,76) ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei ematea, beronen aurka jar daitezkeen erakurtoen berri emanez.

B) Alvaro Cousillas Calzada jaunak egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

Alvaro Cousillas Calzada jaunak ondare erantzukizuneko eskaera egin zuen 2003ko abenduaren 28an. Zehazki 84,54 euroko kalte-ordaina eskatzen dio Udalari bere kotxeak egun batzuk lehenago Euskadi Etorbidean zegoen zuloan sartu zenean jasandako kalteengatik. Eskaerarekin batera, kalteen konponketarako faktura aurkeztu du.

Udalak frogatutzat jotzen du gertatutakoa espedientean dauden txostenei jarraiki.

Nolanahi ere gertaeran eskatzailearen jarrerak izan du bere eragina, izan ere leku horretan gehieneko abiadura orduko 30era mugatuta dago eta hori errespetatuz gero kalteak ez ziren izan direnak izango. Bestalde, eskaerak ez du kontuan hartzen gurpilaren azalaren balioa zenbatzerakoan ezin dela berriarena kontatu, ezbeharrak izandako unean gurpil-azal horrek zuen salmenta-balioarena baizik.

Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU



LEHENA.- Zati batean BAIESTEA Alvaro Cousillas Calzadak eginiko ondare erantzukizuneko eskaera eta konponketaren %50 (42,27 euro) ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

C) Rafael Pérez Errondosoro jaunak egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

Rafael Pérez Errondosoro jaunak ondare erantzukizuneko eskaera egin zuen 2003ko abenduaren 31n. Zehazki 215,09 euroko kalte-ordaina eskatzen dio Udalari bere kotxeak egun batzuk lehenago Euskadi Etorbidean zegoen zuloan sartu zenean jasandako kalteengatik. Eskaerarekin batera, kalteen konponketarako faktura aurkeztu du.

Udalak frogatutzat jotzen du gertatutakoa espedientean dauden txostenei jarraiki.

Nolanahi ere gertaeran eskatzailearen jarrerak izan du bere eragina, izan ere leku horretan gehieneko abiadura orduko 30era mugatuta dago eta hori errespetatuz gero kalteak ez ziren izan direnak izango. Bestalde, eskaerak ez du kontuan hartzen gurpilaren hagnunaren eta azalaren balioa zenbatzerakoan ezin dela berriaren balioarena kontatu, ezbeharrak izandako unean zuten salmenta-balioarena baizik.

Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Zati batean BAIESTEA Rafael Pérez Errondosorok eginiko ondare erantzukizuneko eskaera eta konponketaren %50a (107,54 euro) ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

D) Manuel Fernando Mosqueira Cousillas jaunak egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

Manuel Fernando Mosquera Cousillas jaunak ondare erantzukizuneko eskaera egin zuen 2004ko otsailaren 25ean. Zehazki 110,29 euroko kalte-ordaina eskatzen dio Udalari bere kotxeak izan dituen kalteengatik garbiketarako udal gurdi batek jo zuelako. Eskaerarekin batera, kalteen konponketarako aurrekontua aurkeztu du.

Udalak frogatutzat jotzen du gertaera zerbitzuburuak eginiko txostenaren arabera.

Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU



LEHENA.- BAIESTEIA Manuel Fernando Mosqueira Cousillak eginiko ondare erantzukizuneko eskaera eta konponketaren faktura ekartzen duenean, 110,29 euroko ordaina ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei ematea, beronen aurka jar daitezkeen erakurtoen berri emanez.

E) Alfredo José Da Silva Gonçalves jaunak egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

Alfredo José Da Silva Gonçalves jaunak ondare erantzukizuneko eskaera egin zuen 2004ko urtarrilaren 2an. Zehazki 89,19 euroko kalte-ordaina eskatzen dio Udalari bere kotxeak jasandako kalteengatik Gabonetarako argiteria erori zitzaionean. Eskaerarekin batera, kalteen konponketarako aurrekontua aurkeztu du.

Udalak frogatutzat jotzen du udaltzainburuak egindako txostenaren arabera

Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- BAIESTEIA Alfredo José Da Silva Gonçalves jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaera eta konponketaren faktura ekartzen duenean 89,19 euroko ordaina ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei ematea, beronen aurka jar daitezkeen erakurtoen berri emanez.

F) Miguel Angel Echarte García jaunak egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

Miguel Angel Echarte García jaunak ondare erantzukizuneko eskaera egin zuen 2004ko urtarrilaren 12an. Zehazki 248,99 euroko kalte-ordaina eskatzen dio Udalari bere kotxeak jasandako kalteengatik Gabonetarako argiteria erori zitzaionean. Eskaerarekin batera, kalteen konponketarako faktura aurkeztu du.

Udalak frogatutzat jotzen du udaltzainburuak egindako txostenaren arabera

Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- BAIESTEIA Miguel Angel Echarte García eginiko ondare erantzukizuneko eskaera eta 248,99 euroko ordaina ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei ematea, beronen aurka jar daitezkeen erakurtoen berri emanez.



12.- Obra baimena: Arrandegi, 4 solairuan kartela jartzeko.

ATCE, S.L. enpresak 2004-01-13an OBRA TXIKIA EGITEKO LIZENTZIA eskatu zuen, Arrandegi, 4. zk.ko solairuartearen iragarki-kartel bat jartzeko.

Udal Teknikariak eskaeraren aurkako txostena egin du eta bertan ondokoa adierazi du: Pasaiako Arau Subsidiarioen 061. Artikuluaren 6. puntuak ondokoa dio:

“6.- Behe-Oineko lokaletan kokaturiko errotuloak, iragarkiak edo publizitate-elementuak fatxadarekiko modu paraleloan garatuko dira, beren gehienezko irtengunea 0,10 metrotakoa izanik. 2,50 metrotara egongo dira gutxienez kokatuta espaloiaaren sestraren gainetik, eta ez dute lehen oinaren zoru-forjatuaren azpikaldea inoiz gaindituko. Gisa honetako elementuak ez dira edifizioaren Goiko Oinetako fatxadetan baimentzen. Nola nahi dela ere, Arau hauen II Tituluak 33. Artikuluaren 11. epigrafean esandakoari jarraituko zaio.”

Tokiko Gobernu Batzordea da lizentzia-eskaeren inguruko erabakiak hartzeko eskumena duen organoa, txosten erabakigarria aldekoa ez denean, eskumenak eskuordetzeko Dekretuaren arabera (2003ko ekainaren 19koa), hori dela eta bertako zinegotzien aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- ATCE, S.L. enpresari OBRA TXIKIA EGITEKO LIZENTZIA ukatzea, Arrandegi, 4. zk.ko solairuartearen iragarki-kartel bat jartzeko; izan ere, Arau Subsidiarioen 61. artikuluan jasotzen denaren arabera, solairuarteetan ezin da kartelik jarri.

BIGARRENA.- Interesdunari erabaki hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

13.- Obra lizentzia: Mendiola bidea, 7.

Gai hau mahai gainean geratu da txostena aurkakoa ez dela konturatzean.

14.- Zigor espedienteei ekitea.

Espediente hauek babestu behar diren datu pertsonalak dituzte.

15.- Kultur Programak 2004-ri subentzioiak emateko oinarriak.

Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi Delegatu andreak 2004ko otsailaren 24an egindako proposamenez, Tokiko Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Behar bezala diligentziatuta espedientean agertzen diren 2004ko kultur programei subentzioak emateko Oinarriak onartzea.

- Gaizerrendatik at eta bertan sartzea bertako zinegotziek aho batez aurrez berronetsirik, hurrengo akordioak hartzen dira:

16.- Inauteri Jaiak dirla eta 2004ko gastuentzat aurrerapena.

2004ko Inauteri Jaiak direla eta Barrutietako Jai Batzordeek hainbat jarduera bultzatzeko, Tokiko Gobernuaren Juntak 2004ko otsailaren 13an egindako proposamenez eta bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Aipatu Batzordeei hurrengo subentzioak ematea:

Pasai San Pedro	600 euro
Pasai Donibane	600 euro
Pasai Antxo	3.086 euro
Trintxerpe	3.086 euro
GUZTIRA	<hr/> 7.372 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-145/04 Baimenduaren kargura.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, xxx direnean, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau andre Alkateak eta nik, ziurtatuz, sinatu dugularik.